

(Batzar irekia Axularren omenez)

1974 - IX - 14

Urdazubin, 1974ko Irailaren 14an. Salvatore elizan elkar-mezaren ondorean, goizeko hamabietan kalostrean anitz jende bildu da, mahaiburuan Julio Iturralde nafar diputatua, Daniel Castro herriko alkatea, V. Galbete "Principe de Viana" elkargoko zuzendaria, Zalbalza jaun kalonjea, euskaltzainburua eta buruordezkoa. L. Villasante euskaltzainburua eta J. Haritschelher buruordezkoaz gainera, A. Arrue, X. Diharce, A. Irigaray, A. Irigoyen, P. Lafitte, L. Mitxelena, J. San Martin eta J.M. Satrustegi euskaltzain jaunak; N. Alzola Gerediaga, G. Aresti, F. Arto-la, J. Bilbao, M. Etchehandy, J.A. Etxebarria, J. Fernández Setien, M. Garde, J. Goikoetxea Maiza, J. Intxausti, M. Itzaina, M. Izeta, X. Kintana, J.L. Lizundia, J. Oleaga, S. Onaindia, J. Oregi, I. Sarasola, P. Xarriton eta J. Zaitegi euskaltzain laguntzaile jaunak.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

J.M. Satrustegi euskaltzain nafarrak batzarraren berri eman zuen. Ondorean, Castro jaunak, herriko alkate bezala ongi etorrizko hitzak. Gero, Villasante euskaltzainburu jaunak, bildu ziren guzietan Euskaltzaindiaren izenean agurra eta eskertzea. Axularren omenez zenbait hitz bere izena gorapatuz, Nafarroako hizkuntza zaharraren gordailu eta euskal literatura landuaren idazlerik gogoangarriena den aldetik. Eta Axularren omenaldi hau bide, J. San Martin jaunak egingo duen euskaltzain sarrera hitzaldia aipatzen du.

Arrue eta Diharce euskaltzain jaunek, ohitura den bezala, Juan San Martin eraman dute mahaiburura. Eta, honek irakurtzen du bere sarrera hitzaldia, euskal literatura landuaren sorrerako giroa Axularren garaira arte. Bere tesisean aztertzen ditu garai hartako ideologia borrokak, erlijiozkoak batez ere, Nafarroak bere erregetza galtzetik sortuak garaiko ekonomia mugimendua artegintzaren argira emanak eta abar, nola sustraitu zuten literaturagintzaren hastapena Axularrek goren mailara eraman arte.

Jean Haritschelher euskaltzain eta Euskaltzaindiko buruordezko jaunak irakurtzen du erantzunezko hitzaldia. **Gero**-ren pasarte bat gogoraziaz, esaten dio San Martini, egitekoa gerorako utziaz zertan luzetu den horrenbeste hamar urteren buruan hitzaldia egin gabe. Baina, bestalde, San Martinen aspalditikako merezimenduak aipatzen ditu eta honen hitzaldiari zenbait osagarri erantsi ere bai.

Luis Villásante jaunak, euskaltzainburu bezala, izendapenezko diploma ematen dio San Martin jaunari, zorionak eskainiaz eta ongi-etorria emanaz.

Vicente Galbete "Principe de Viana" Erakundearen zuzendari jaunak eta Jose Maria Satrustegi, Erakunde bereko eta euskaltzain jaunak, "Fronts Linguae Vasconum" aldizkariaren Axular-i buruzko zenbaki bereziaren aurkezpena egiten dute. Ondoren batzarkideen artean ale bana zabaltzen da.

Julio Iturralde diputatu jaunak, Nafarroako Foru Diputazioaren izenean egiten dituen hitz batzuekin batzarre irekiari amaiera ematen zaio.

Ondorean, bildutako jendetza, Axularenia etxera urbiltzen da, Pedro Dagerre Azpilkueta "Axular" zenaren sortetxea, eta **Gero** liburuaren egile honen izenean oroitarria agerrarazi: 1974.-Axular euskal idazle nagusiaren sort-etxea. 1556 - 1644. Ayuntamiento de Urdax. Diputación Foral de Navarra. Academia de la Lengua Vasca" jartzen duena, herri bereko etxeetan agertzen den grafia eta apaingarri eraz.

Batzandarrak mutil-dantza egin dute eta Xalbador eta Mattinek zenbait bertsoen eskaintza.

Azkenean, bazkaria Herriko Etxean.

Euskaltzainburuz
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN